

2ª Orientazio froga herrikoia 2025 – 2026 Denboraldia

2026eko martxoaren 29, igandea, Iribas



1. Buletina

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Lekua eta data

2025eko martxoaren 29an, igandea, Iribasen ospatuko da 2025-2026 Nafarroako Orientazio Liga herrikoiaaren bigarren proba.

Kokalekua

Lehiaketa zentrua: Iribasko frontoi estalia

<https://share.google/bRYFQP22s0fl14W0p>

Bazenekien?

...Gure inguruan dugun paisaia gure kulturaren parte da, historiaren lekuko eta inguruko komunitateen garapenerako aberastasun-iturri.

...Iribas Baraibarrekin batera osatzen duen ordokiko ekialdeko ertzean kokatuta dago. Heritik hego-ekialdera Larraun ibaiaren iturburua dago, eta kontrako norabidean Baraibarrera iristen den bidea eta larreak. Iribasek 43 biztanle ditu eta itsas mailatik 610 metro ingurura dago.

...Herriko etxeak lautadan zehar banatzen dira. Arkitekturari dagokionez, baserriak interesgarriak dira, baita XIII. mendearen hasierako eliza protogotikoa ere, San Joan Bataiatzaileari eskainia, dorre lirain eder batekin eta ataripe batek babesten duen portada dotorearekin. Bestalde, herriko sarreran tamaina txikiko frontoi estali polit bat aurkitzen dugu.

...Inguruan intereseko elementuak ditugu, hala nola Larraun eta Etzilla ibaien iturburuak eta Lezagaldeko haitzuloa.

Fuente: <https://www.larraun.eus/es/iribas/>

...Mendukiloko haitzuloa, Iribastik 5 kilometrora, mendeetan zehar erabiltzen izan da artzainen ukuilu eta babes-leku gisa; hortik dator bisitan hartzen gaituen espazioaren izena: **Artzainzulo**. Aralarko mendilerroan, artzaintza da jarduerarik zabalduenetako bat.

Informazio gehiago: <https://mendukilo.com/cueva/>

...**Aralarko mendilerroak**, balio naturalagatik nabarmentzeaz gain, gizakiak bere sorreratik beretik **bizileku** izan duen espazioa izan da. Hala erakusten dute inguru honetan dauden **aurre-historiako lekukotzek**, San Migel Aralarkoak duen historia aberatsak —arkitekturak, esmalte-fronteak, tradizioek eta kondairek— eta inguruan egindako **aurkikuntza arkeologikoek**, ez oso ezagunak diren beste mikrohistoria batzuen lekuko direlako...

Informazio gehiago: <https://www.culturanaavarra.es/uploads/files/08-TAN30-San%20Miguel%20de%20Aralar%20color.pdf>

Interes Geologikoko Lekuak inguru honetan:

Karst paisaien ibilbidea: <https://www.unavarra.es/difusion-geologica/patrimonio-geologico/publicaciones?contentId=270343>

Aralarko Malloetako aurre-estalketa:

<https://info.igme.es/ielig/LIGInfo.aspx?codigo=CV034>

Programa

Kontuz ordu aldaketarekin!

- 10:00 h: Lehiaketa zentroaren irekiera.
- 10:30 h: Open beltzeko lehenengo irteerak.
- 11:00 h: Beste kategorietako irteerak.
- 12:30 h: Azken irteerak
- 14:00 h: Helmugaren itxiera.

Irteerak mailakatuta egingo dira 2 minuturo, eta gehienez 3 parte-hartzaile aldi berean (kategoria bakoitzeko bat).

Ez dira irteera orduak aurrez esleituko.

Kategoriak

Open Horia gizonezkoak bakarka / emakumeak bakarka / taldeka:

- Haurrentzako hastapena eta familia taldeentzako kategoria
- Gutxi gora beherako distantzia: 3km baino gutxiago

Open Laranja gizonezkoak bakarka / emakumeak bakarka / taldeka:

- Helduentzako hastapena eta familia taldeentzako kategoria
- Gutxi gora beherako distantzia: 3.0 - 4.0 km

Open Gorria gizonezkoak bakarka / emakumeak bakarka / taldeka:


- Helduentzako maila ertaineko kategoria.
- Gutxi gora beherako distantzia: 4,5 km

Open Beltza gizonezkoak bakarka / emakumeak bakarka / taldeka:

- Helduentzako maila altuko kategoria.
- Gutxi gora beherako distantzia: 5 - 6 km.

Parte-hartzea normalean **banaka** izaten da, orientazio nozioak dituzten pertsonentzat gomendatua. Gainerako parte-hartzaileentzat (experientzia urriagoa dutenentzat), **taldean edo bikoteka** parte hartzeko aukera eskaintzen da.

Informazio teknikoa



Kartografoa: Roberto Pascual (2020) / **Mapa partzialki errebisatuta** Violeta Romerok (febrero 2026)

Eskala 1:7500

Trazatzailea: Asier Elizalde Zubillaga

Kontrolen deskribapena parte-hartzaileen eskura egongo da mapan bertan.

Ibilbideak eta gutxi gorabeherako distantziak (hurrengo boletinean)

KATEGORIA	DISTANTZIA (km.)	DESNIBELA (m.)	BALIZA KOPURUA
OPEN LARANJA			
OPEN HORIA			
OPEN GORRIA			
OPEN BELTZA			

Kronometraje sistema

Kategoria guztiek SPORTident erabiliko dute.

Ibilbidea amaitzen ez duen edo erretiratzen den korrikalariak **SPORTident deskarga gunetik pasa behar du, antolakuntzak jakin dezan erretiratu dela.**

SPORTident txartelik ez duten parte-hartzaileek inskripzio formularioaren bidez alokatu ahal izango dute, 3 euroko kostuarekin, NANA gordailu bezala utzita. Txartela galtzen edo hondatzen bada, 30 euroko zenbateko gehigarria ordaindu beharko da.

Emaitzen argitaratzea

Froga bakoitzaren emaitzak eta bukaerako sailkapena [Nafarroako Kirol Elkarte](#) webgunean eta [Liveresultat](#) argitaratuko dira.

Izen emateak

Parte-hartzaile guztiek frogan izena emanda egon behar dute. Antolakuntzak ez du bermatzen aurrez izena eman ez duten pertsonak parte hartzeko aukera. Froga herrikoian parte hartu nahi duten pertsonak izen-ematea Deporticket plataforma bidez egin beharko dute, honako helbidean:

<https://www.deporticket.com/web-evento/12925-liga-popular-de-orientacion-navarra-iribas>

ASEGURUA EZ DUTEN 14 URTETIK GORAKO PERTSONA GUZTIENTZAT NAHIATANAHIZEKOA DA

INSKRIPZIOAN NANA ADIERAZTEA DERRIGORREZKOA IZANGO DA.

Epea martxoaren 25an, asteazkena, gaueko 23:59tan amaituko da.

Prezioak honako hauek izango dira:

- 2023-2025 artean jaiotako pertsonak: 0€
- 2013-2022 artean jaiotako pertsonak: 3€
- 2012 eta aurreko urteetan jaiotako pertsonak: 6€
- CDN/NKEko kideak: 1€ (2023-2025 artean jaiotakoak izan ezik, 0€)

Federatu gabekoentzako proba aseguruia (Orientazioa / Mendia): +3€/pertsona
Sportident alokairua: +3€ (CDN/NKEko kideak: +0€).

Talde bakoitzeko inskripzioak 2 mapa barne hartzen ditu. Mapa gehiago nahi izanez gero, talde inskripzio formularioaren bidez eskatuko dira, mapa gehigarri bakoitzeko +1€ kostuarekin.

Izen ematearekin zalantzak baldin badituzue, hona idatzi:

inscripcion.o.cdn@gmail.com

Beharrezko materiala eta praktika onak

Kirol arropa eta oinetako egokiak erabiltzea gomendatzen da, hobe trekking edo trail motako zapatilak. polainak edo galtzerdi altuak erabiltzea komeni da. Gainera, eguraldiaren arabera, berokia edo euritakoa.

Ibilbidean zehar iparrorratza erabiltzea gomendatzen da. Iparrorratzak maileguan ditugu, agortu arte. Iparrorratza galtzen bada, 10 € ordaindu beharko dira.

Jasangarritasun eta praktika onen printzipio gisa, hornidura autokudeatua izango da, plastikoen erabilera saihesteko. Orientazio kirolak beti erakutsi du ingurunearekiko errespetu handia duela, horrela jarraitzea nahi dugu. Zuen lankidetzak eskertzen dugu!